



Garraiolari bat hil da Hernanin

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 16/04/2025

Dagoeneko 18 dira aurten Euskal Herrian lan-istripuz hildako langileak.

Astelehenean, Hernanin, 57 urteko garraiolari bat hil zen Repsolek A-8an duen gasolindegian erregaia kargatzen ari zela. Dirudenez, osasun arazo bat izan zuen. Hildako langilea Iruñeko Getze (Nafarroa) herriko Transportes Petrolíferos Coordinados SL enpresakoa zen. Heriotza honekin, dagoeneko 18 dira aurten Euskal Herrian lan-istripuz hildako langileak.

<https://eh.lahaine.org/garraiolari-bat-hil-da-hernanin>